



GUDA ONDORENGO EUSKAL OLERTI GIROA

“EUZKO-GOGOIA”

Ekaitz ostean eguzkia bezela, 1936'garreneko guda ondoren, ekaitz bitartean or-emen sakabanaturiko euskaldun jatorrak, nora-ezean diot nik, euskeraren auziari eutsi nai izan zioten kemen aundiz. Aurreko urteetan ere, garai bakoitzak bere maillan eta neurrian, auzi orrentzat askabide baten billa ibilliak genitun; baiña jakingarria dugu onetaz J. Zaitegi'k dioskuna. “Auzi ori-idazten digu-, esan bear, aiek ere beren barne-muiñetan sentitu zuten, auzi orren askabidea ordea, ez zuten guk bezela izkeraren gainean ezarri, euskeraren gain, alegia. Ez dago besterik: gure auzia euskerakaskatuko du, ez beste ezerk”.

Eta bertatik berak sortu ta aurrera eraman zuen aldizkari errimea, Euzko Gogoa, aipatzen digu. “Orregaitik –darrai– Euzko-Gogoa'n ari izan geran idazle guziok euskera landu, apaindu ta egokitzen eman ditugu gere onenak. Euskadi'ko mugarte ta gizamailla guzietan aberri-izkera loratu dedin. Euskera mugatu bai bagenu, gure auzi au bertan gertatuko litzake ustel eta gure erriaren bizitzak ez luke askabiderik izango. Gizaldi eder au Euzko-gogoa'ri zor zaio, gure erriaren auzi-mauzi guziak euskeraren bitartez garbitu nai lituken gizaldi berria” (E.-G., 1955'go orrilla-lotazilla).

Izan ere, ez zuen auzia askatu nairik, esparru extuetan ibilli nai izan. Ainbat gai aizatu zituan bere aldizkari orretan. Olerti saillean orduko olerkaririk onenak idatzi zuten, eta Zaitegi'k seigarren urtean gain-begiratu bat egin nairik, onela dio: “Benetako antologi zoragarria, iñoiz gutxitan euskeraz ikus ditekena”; elerti saila aberats zetorren; jakintza-saila ere, “gure maizu aundien argitasunez gainezka datorkigu”; antzerki saila berdin.

Arrasate'tar jakintsuak umetatik eraman zuen euskaltzaletasunaren garra, bere izatearen barne ondo itxasita: gurasoak emana nunbait gar orren izana. Eta gusoak emana ez bait da errez urtzen, naiz-eta oillo-lurretik ez urbil bizitzegunak erre bear. Ego-Amerika'n zebilelarik ere, biotz-barru zeraman euskeraganako sua bizi ta zabal: an idatzi zizkigun ainbat olerki eder, an –Guatemala'n– sortu zigun “Euzko-Gogoa”, ainbat urtez euskal lan aintzagarria egin ziguna.

1950'an azaldu zan, sei urtetan Guatemala'n eta gero urte batzuetan Biarritz'en jarraiturik. 1954'an, V'garren urtea zeralama, onan idatzi zuen: “1949'garrenaren ondarrean agiri bat egin genun euskeraz, euskal-aldizkaria sortzeko asmotan. Batek edo bestek erantzun zigun gure asmoa aizatu nairik. Norbaitek zorotzat jo giñuzan. Alare, esan eta egin, 1950'garren urtean asi giñan”.

Norztuk lagundu zuten ere argi ta garbi diosku: “Ba-zetozten euskal idazle-ak aldizkari berriaren asmoetara: Altube errikoiak, Argarate mixiolariak eta zuzendariak aurrenekoa idatzi zuten. Bigarrenekora Orixe, Andima, Urrutia’tar Gotzon eta Tauer’tar Norberta etorri zitzaizkigun. Nai izan bezela, oraingo idazlerik bikañenak bertan egin digute batzarre eta lau urte aunditan, oraingo euskal-idazle ta olerkaririk garaienak gureganatu zaskigu: Urrain, Mitxelena, Jemein, Mirande, Monzon Onaindia, Aurraitz, Ibalan, Etxaniz, Leizaola, Garate, Larrañaga, Iratzeder, Bordatxuri, Oartzabal, L. Mendizabal, Antxeta, Peillen, Kruwig, Ibar, Arantzibia eta abar”.

Zebillen asmoa zeatz mugatzen du: euskera edertu, gizon ikasiak euskeraz idazten ipiñi, alderdikieretatik iges egin... Entzun berari: “Euskera iraunerazi, edertu ta zabaldu nai dugu nork bere kitatxoan. Gizon ikasiak euskerarenganatu nai ditugu. Ortarako oraindik langu-gabe zeuden gure alorretan ildo berriak urratzen asiak gera. Alderdikeriak oro bazterreratu ta euskaldun guziak onartu bear dutena onartu dugu. Euskaldun fededun izaki, erdiko bide zabale-
tik barna jo nai izan dugu. Euskaldun euskerak egin gaitu; beraz, euskera gabeko Euskadi’rik eztugu opa” (E.-G., 1954, Ilbeltza).

Esana dut: 1955’an. Guatemala utziz, Euskalerrira etorri zan emen lan bikaiñagoari ekin al izateko asmuz. Ainbat urrats eman zituen ortarako, nork lagundu billa, bai mugaz andik eta bai emendik. Etzuen giro ona aurkitu, etzuen laguntzaillerik idoro, berak opa zuen besterik beintzat. Baiña oztasun orrengaitik ere, ezin etsita, Biarritz’en ekin zion, naikoa bakarrik, bere lanari, beste urte mordoska batean.

Gizaseme gotorra zan J. Zaitegi. Eta erbestean naiz Ipar-Euzkadi’n, euskeraren alde –eta batasunaren alde– lan bikaiña egin zuenik, bere aldizkari jas aundikoeren bitartez egin ere, ez du iñork ukatu al izango. Euskal idazlerik onenak bere biran bildurik, elerti ta olertian batez ere, euskaldun guztiok zor diogun lan txalagarria burutu zuen.

“GERNIKA”

Gizona ez dala errez naikotzan dana, esan oi dugu. Eta lan-grifiak zirikatzen gaitunean, mirariak egin oi ditugu sarritan. 1945-4-26’an, Donibane Lohitzun’en batzar ba antolatu zuten euskaldun jakintzu mordo batek –I. Fagoaga, J. Thalamas Labandibar...– eta bilkura ortatik erne zitzaigun 9 urte-tan –1945-1953– lan ederra burutu zuen “Gernika” aldizkaria. Lenengo urtee-tan Donibane’en agertu zan, eta gero, 16’garren zenbakia, 1951’garren urtean Buenos Aires’tik zetorren.

Euskeraz ta erderaz idatzia da, ta lan jakingarriak dauzkagu bertan. Elerti ta olertiari gagozkiola, ainbat artikulu maixuki egiñak irakurri ditzakegu bertan. Olerkarien artean atsegin bekigu auen lanak aipatzea: Iratzeder, E. Erkiaga, Kruwig, Larramendi’tar Iñaki, E. Salaberi, Mirande’tar Jon, Aldabe’tar lokin, Peillen’dar txomin, Aita Bera, ta besteak. Adolfo Larrañaga bizkaitarraren poema balioitsuak be, erederaz, antxe agiri dira.

“EGAN”

Ona beste aldizkari eder bat, lendabizi erderaz ta euskeraz idatzia izan arren, gerora euskera utsean argitara emana. Ogetamairu urte daramazki eus-

kal-arloko lanean; ezta gutxi. Gipuzkoar argi batzuk sortu zuten, edo BAP'en literatur geiagarri bezela atera zuten, eta ateraten dute gaur ere, A. Arrue, A. Irigarai ta L. Mitxelena zuzendari dirala. Urtean sei ale mardul.

Olertiari begira, 1949-1'en olerkari auen lanak datoz: Emeterio Arrese tolosar poeta bioztiaren 10 poematxo; 1949-2'an, Jose Aguerre iruñar ospetsuaren "Egutegian Oar-ketan"; 1949-3'an, F. Krutwig'en bi olerki ta 1949-4'an, K. Sagartzazu'ren lau poema.

Ikusten denez, "Egan"-ek naiko garrantzi eman dio antza euskal olerkiari. Toki nabarmenean jarten ditu, beintzat, poeten irudikizun eta sorpen dotoreak. 1950-1'an, Alustitza'tar Julian Aita prantziskotar gaztearen 6 poema ta Lekuona'tar Juan Mari'ren beste iru poema dakarzki; 1950-2'an, Nevadako Artzainaren "Nevadatik" eta Jauregi'tar Luis'en "Baserrira Itzulpena"; 1950-3'an, Ormaetxea'tar Nikola'ren "Angelus", Muxika'tar Emiliano'ren "Iaguntzale" ta Pagadizabal'tar Prantzisko'ren "Ene basetxe" ta "Elurte"; 1950-4'an, Salvatore Mitxelena'ren "Nere Izarrari", Juan Mari Lekuona'ren "Izaki Abestia" ta Onaindia'ren "Nere Zoriala".

Urrengo urteetan datoz Bordari, E. Erkiaga, Gaztelu, Markiegi'tar Peli... urtez urte konta ezin-al besteren lanak eta lanak. Labor: "Egan-ek lan gaitza burutu du euskal alorrean, ipui, alegi, poema, irakurgai bipil, izkirimiri ta milla gai jakingarritarteko, bere bizitzaldi luze ta ondo arduratsuan.

"KARMEL"

Karmeldar aldizkari au ere eztugu gaur goizekoa, 1949'an Hoz de Anero (Santander)'ko komentuan bizi nintzala, neuk sortua baizik; geroztik dabil gure artean, ainbat gai astindu ta euskal errian zabal-azirik. Ogeta-amabi urteotan izan ditu -ezta arritzekoa!- bere etsai eta aurkalaria, etxean eta kanpoan. Baiña danoi gaiñez egiñik, aurrera jarraitu du beti.

Urteak joan urteak etorri, guztiz errikoa izan zaigu "Karmel", gure erriak maite izan duena, alegia. Eta erriari zer atsegin zaion jakiñik, ele-ederra ere ugari eman izan dio. Lenengo zenbakitik asita, etengabe ekarri ditu olerki arin, goxo ta erakusgarriak: lenengo aleak 30 poesi zekarzkin. Berton azaldu zan Dante'ren "Suleza", R. Tagore'ren poema sail bikaiña; bertan, baita, urte-mordo ontako olerkaririk onenen bertso-lanak ikusi daikeguz gaur ere (ikus KAR-MEL, 16 zenbakia, 1980-4, 1 or.).

"MILLA EUSKAL-OLERKI EDER"

1954'an datorkigu euskal poesiari bultzadarik ikaragarriena emango zion olerki bilduma. Argia ezta lakaripean jarteko, ingurukoai argi egin dezan baizik. Nik ere ezut nere lana zertan ezkutatu. "Egi utsa da Jainkoa -dio Santa Teresa'k-, eta apaltasuna egitan ibiltea"; egiz jokatsea, beraz, ezta artobero usaia edaztea, gauzan bakoitzari berea ematea baizik. "Milla Euskal-Olerki eder" nere semea da, ta guztiz kutuna izan ere. Izan nuen nekerik 1.200 orrialdeko bilduma ori osatzean. Aspaldi batetik asi ta egun aietaraiñoko poeten lanak sailkatu nitun bertan. Ale batean eta bitan argitarau ziran olerkiok. Bost bat urte dira osatu nuen beste bilduma bat arrezkeroko olerkari ta poeten lanekin, ots, 1954'tik 1977'ra agertu diran bertso-lanik onenakin biribuldua. Argitara gabe datza oraindik.

Bero bai bero artua izan zan bilduma au Euskalerrri osoan. Goralpenez gair-
ñezkako lanak idatzi zituzten Orixe'k, A.M. Labaien'ek J. Zaitegi'k, Lafitte'k...
"Egan"-en, "Euzko-Gogoa"-n, "Gure Herria"-n eta abar. Orixe'k ikusiaz bat
idatzi zidan, Azkue'ren Iztegiarekin eta Kantutegiaren berdindurik. Orduarte
etzan olako antolojiarik euskal literaturan; itz-lauzko ta poesiar buruzko iru
idaztiño ezagutzen ziran aurretik: erderaz J.M. Leizaola'ren "Literatura Vasca"
(Barcelona, 1923), Espasa'n 1447 orrialdean datorrena, Orixe'ren "Euskal-lite-
raturaren atze edo edesti laburra" (Euskal-Esnalea, Donostia, 1927) ta P. Lafit-
te'ren "Euskaldunen Loretegia" (Baiona, 1931).

B. Estornés Lasa'k, 1936'tik 1960'ra bitartean egiñiko euskal literaturako
antolojiak aipatzean, onela ari da: Una de las lagunas de la literatura euskérica
era la carencia de una antología en la que reunieran textos escogidos de
todas las épocas. Nuestros libros antiguos eran raros y solamente estaban al
alcance de bibliófilos especializados como Julio de Urquijo, Lacombe, Vinson,
etc. En esta situación y no habiendo sido posible la edición de textos anti-
guos, el P. Santiago de Onaindía, llevó a cabo la vieja aspiración. Así nació
Milla Euskal-Olerki Eder (1954), publicada en Larrea-Amorebieta (Vizcaya).

Ibalan'ek (A.M. Labaien) onela "Egan"-en (1954, 43 or.): Liburu eder ortan
oraindañoko euskal Olerki osoa dugula esan diteke: antziñako guda-kanta
zaarretatik asi-ta egundañoko gazte berri-zaleen itz-neurtu "zazpiki" -etara-
ño. Bidez-bide erritar bertso, maite-lelo, irri-kopla, jainkotiar kantika ta gure
liriko ikasien olerki garaienak agertzen dizkigularik... Artobero usairik gabe
esan dezakegu: Euskal-Olerkia ugari ta goitar dala ta beste edozein eritakoa
bezin eder ta bikaiña, bakoitzaren neurriaren arabera... Ezin ukatu nekearen
beldurrik gabe ardura eta gartsu lan izugarri bat burutu duna... Liburu bikain
onek euskaldun sendi ta etxe guzietan bear luke toki berezi bat. Gurer jatorri-
ko altxor eta gordailurik miñena bait dugu. Begien aurrean eta erabat biotz-
barnean beti bear genukena gure asaben arma-arri ta larrutxizko agiriak bai-
ño areago".

Andima Ibiñagabeitia elantxobetar euskal idazle argi-joriak ere onela:
"Gure izkerak ere, askotxok uste izan ez arren, badu bere olerti-arrobia. Arro-
bi oparo ta sakon orren yabe egin nai lukenak ar beza A. Onaindiaren liburua
esku artean. Antxen arkituko ditu mota guzietako olerkiak, bertsuak, poemak,
izkera arroenen aitzinean bat ere lotsa gabe aurkeztu ditezken poesi zoraga-
rriak. Aspalditik zebiltzan bizpairu euskalzale eun olerki onenak bildu bear
zituztela-ta. Ordago ederra yo die Onaindiak euntxo biltzeko ere gai izan ez
diran oriei".

L. Mitxelena, ez luzekoi guralpenez eta bai zorrotz iritziz, onela dugo olerki-
bilduma oni buruz: "El P. Onaindia ha prestado un meritísimo servicio al cono-
cimiento de la poesía vasca con la publicación de esta antología, extensa y
completa. La necesidad que hace tiempo sentíamos ha quedado satisfecha y
casi sólo con las producciones poéticas posteriores a su publicación podrá
ser aumentada esta colección... Las versiones que se publican parecen en
general fieles a las originales y el traslado a un sistema unificado de ortografía
está hecha con cuidado y discreción".

P. Lafitte'k, "Gure Herria"-n (1955, 148-51 or.), liburuaren goraberak eta
zer-nolak adierazi ondoren, onan amaitzen du: "Gorespenik bizienak zor zaiz-
kio eskuararen eta Euskal-Herriaren izenean. Bada bilduma hortan zer irakur
eta zertan gogo-bihotzak pulunpa arbasoen jeinuaz orhoituz... Aita Onaindia-
ren lan ederrak erakustera emaiten dauku beraz eskual olerkiaren ezagutzeko
liburu baliosa eta haren sailari jarraitzeko parada ona".

Akatsik ote? Jakiña! Antoloji ain aundiak eta aurretiko lan ain exkasez egiñak bear-bearrez eukiko ditu bereak eta bost. L. Mitxelena'k, P. Lafitte'k eta besteak, alan ere, ez dizkiote askorik idoro; bizpairu geienik ere. Ona: 1) zergatik sartu nitun arabar eta napartar olerkariak, zisku bat berean; 2) textu batzuk aldatu egin nitula, eta; 3) olerkari batzuk, zergatik biurtu nitun eliz-gizon. Iru akatsok L. Mitxelena'k aipatu zizkigun BAP'en osatu zuen aurkezpenean. Eta ondoren, beste guztiak ere-ezer aztertu gabe, jakiña-berdin esan dute, itza ta pitza erauziz.

Lenengoari erantzunez, au diot: III'garren saillean onela egin nuela zatiketa: Bizkaitarrak, Gipuzkoarrak eta Bidaso'z andikoa. Garai ortako arabarrak iru besterik etziran: J. B. Gamiz, Latierro eta Aizkibel'dar Bingen, au jaiotzez Legutiano'koa izanda ere, ia bizitza guztian Bilbo'n bizi izana; naparrak, berriz, Aita Bera, Iraizoz, A. Zاراia, Lazkoz'tar Xabier, Jose Agerre eta Tapia-Perurena, besterik.

Bigarrenari erantzunez, au diot: Ez dala errez textu zaarretan zein dan zaarrena jakitea. Egin nuen alegiñik ortan. Aurretiko bildumatzaille txikietan ere bakoitzak egin oi zitun, itxura danez, bere aldakuntzak eta lendabiziko textua zein zan idoro eziñik aurkitu nintzan bein baiño geiagotan. Ogetazazpi urte iraganak dira nik "Milla Euskal-Olerki eder" atara nuenetik; geroztik ikerketa aundiak egiñak ditugu, eta ala ere ba ote dakigu kanta zaarretatik zein dan jator-jatorra, ots, orijinala? Dana dala, L. Mitxelena'k olako erbiko edo uts-egite bat aurkitu zidan, *itunik, tristeri'en* orde, "Txoriñoak kaiolan" deritzan maite-kanta liraiñean; eta ondoren, ele-jario guztiak nik textua aldatu nuela errepikatzen du.

Iugarrenari buruz, au diot: Orduan oraindik ez zegoela gerora jalgi zitzai-gun eliz-gizonen aurkako griña zantarrak. Eta nik eliz-gizon ziranei "apaiz" edo-ta "lekaide" goi-izena jarri nien; eta euskal literaturan ordurarteko idazlarik geienak apaizak eta fraileak izan ziralako, onek sumindu zitun banaka batzuk, L. Mitxelena batez ere. Eta au eraman eziñik edo, bere "Historia de la Literatura Vasca"-n (Madrid, 1960) auxe dio soil-soilki nire liburutzaz: "Esta abundancia -apaiz literaturarena noski- resulta aún mayor en la antología del padre Onaindía, que ha dado el título de "padre" a algunos autores que, a lo sumo, no pasaron de ser padres de familia". Salakuntza merke au garbitzeko, au irakurri besterik ez L. Akesolo ta biok jarri giñan "şendi-aita" oiek zeintzuk eta zenbat ziran erakutzen. Xixta maltzuraren irain-mirria laister loratu zan ezpain ertzean. Bizkaitar eta gipuzkoarren artean bat agertzen da, Jose Elizondo Lopez, tolosarra, eliz-gizon eztana, gero "Euskal Literatura"-n (III, 241 or.) orraztua; mugaz andik, Elizalde-Ttipi idazle ez omen zan izan apeza. Ainbat ezizen eta ainbat urteren ondoren, ezta gero erreza nor dan apaiza ta nor eztan jakitea.

Utsok gorabera olerti-bilduma onek bere edertasun betean jarraitzen du. Orren erakusburu bikain bezela, orra J.M. Retena'k orain sei urte (1976) bi ale mardul dotoretan osotu zuen ekoizpena. Ezin iñork uka ezaugarri ona danik.

"OLERTI"

Gerotxoago, 1959'an, "Olerti" sortu nuen. Aurkezpen-orrian onela nik idazle i: "Euskal saillean berein tankerako aldizkariak doguz: "Euskera", "Egan", "Euzko-Gogo", "Zeruko Argia", "Karmel", "Herria", "Gazte", "Othoizlari", "Aranza-

zu”, “Alderdi”, “Gure Herria”, “Goiz-Argi”, eta abar. Guzti oneik, baktzak berre mailla ta neurrian, ederto bete daroe euren egikizuna... Baiña, ba-da, nire ustez, utsune bat oraindik ornidu bage: gure ele eder saillarena. Euskal idazle ta olerkariarik asko dazauguz euren gogo-eta ameskoi ta irudikizun txenbeliñak nun agertarazi ez daukiela, edo argitaratzekotan, txanda luze gogorra zaindu bear dabenak. Ots, gure olerkariak eta bertsolariak ez daukie nun asazkatu, nai bestean, euren biotz-barrena” (Olerti, 1959, 4 or.).

Etzuten bekoki zimurka “Olerti” artu euskal idazleak, olerkariak batèz ere, pozkarioz baizik; poz ori adieraziz idatzi zidaten askok eta askok, idaz-lanen laguntza eskeiñirik. Geroz geiago euskal Lliteraturaren kondaira jorratu dutenak ere erabat txalotu izan dute aldizkari olerkitsua. Auñamendi’k, adibidez, bere III’garren alean onela dio: “¿Cuál fue la novedad en 1969? Indudablemente, la fundación de “Olerti”, una especie de revista donde comienzan a publicar su producción los poetas de todo el país vasco. Su fundador, el veterano escritor carmelita de preguerra, P. Santiago Onaindia. En sus primeros números figuran como fuente de arranque aquellas firmas que vienen de atrás, de la hornada del fundador, bajo seudónimo unas veces, directamente firmadas otras. Pero la aportación de nuevos autores es muy importante, ya que contribuyen desde el primer momento Aresti, Laspiur, San Martín (37 años), Luis Mújica (20 años), “Ayalde”, etc. Se ve con agrado, la inclusión de traducciones poéticas de Gabriela Mistral, R. Tagore, Shelley, F. García Lorca y otros de relieve internacional. Es la primera promoción importante desde Vizcaya” (Literatura, III, 51 or.). Eta geroago: “Una revista de literatura euskérica que iba a dar cohesión y acogida a todo el movimiento poético del país sin descontar la prosa” (Ibidem, 63 or.).

Amar urtez (1959-1969) bizi izan zan “Olerti”. Etzuen bizitza urria eraman, bost-sei ederretatik ikusi dezakegunez. Epe barru ortan, sei-zazpi aldiz etorri zitzaizkidan polizikoak, salatzaileak igorrita; urte batzuetan Madrid’era joaten ziran irar-lanak ango (edo Gipuzkoako) azterleak ikus zitzaten: lan makurrik izanik, ez zegoen argitaraterik. Azkenez, “Gaztañadi” atera nuenean, agiri lantz iritxi zirtzaidan Madrid’etik geiago ez ateratzeko aginduarekin. “Olerti” etzan, ba, auleriz edo porrot-egitez ixildu, ixil-erazi zutelako baizik.

Gerra aurretiko olerkari askok, esan danez, berton idatzi zuten, eta –zergatik aitortu ez?– gazte andana bikaiña berton egin zitzaizkigun olerkari ere. Batzuk baiño ez apaitzeko, len-urteko aurkibidean dauzkagu auen izenak: E. Erkiaga, L. Arteaga, Laspiur, Aurre-Apraz, J.M. Muxika, A. Zugasti, G. Manteola, Juan San Martín, Iratzeder, Bordari, Otari, Peli Markiegi, Jose Aguerre, Ayalde, Ordarubi, Dirauket, E. Igartza, Egieder, Abeletxe, I. Baztarrika, B. Enbeita, M. Lekuona, ta abar; ondoren ditugu: B. Gandiaga, J. Azurmendi, S. Muniategi, J.M. Lekuona, Gaztelu, Erdoizanzi-Etxart, Orixe, Jautarkol, A. Bilbao, Paulo Iztueta, Loidi’tar Paben, eta abar eta abar.

Tamalgarría zan aldizkari eder eta guztion au, amilbeera txikotez loturik bezela, mutu edukitzea. Sarri eman nituen ostera ere piztu-azteko urratsak, baiña itz labanak baiño besterik ez nuen jarezi. Eta urduri nenbillen, euskal olerkia gero ta beerago bait zijoakigun; gure aldizkariak bakanka zebiltzan olerki-gaietan, eta noizik-bein poesi-libururen bat kaleratzen; besterik ez. Gauza zuzena ta egokia zan, bada, “Olerti” berriz ateratzea. Eta ona, igaz, gutxien uste nuenean, gizaseme zintzo ta euskaltzale jator batzuei esker, berriz ere leen bezela bizi-bizi kalean.

AITA ONAINDIA